



MAÑANA GOODBYE

CRUZA MARTE-ren filmea

Garai bateko tabako fabrika, produkzio moduen aldaketak bultzatuta, gaur egungo Nazioarteko Kultur Zentroaren bilakaera ikertzen duen 12 kapituloko seriea da. Zelatan, bi galdera garrantzitsu: lanari dagokionean, zer behar dugu iraganetik? eta, nola eta nondik hitz egin memoriaren inguruan?

Tabakalera galdera hau eta beste hainbaten ikur da, eta eraikineko espazio txiki bat, Sotoa, bideratu du proiektu hau hartzeko. Bertan, ikus-entzunezko instalazio moduan erakutsiko da seriea. Hile erdialdero kapitulu bat gehituko da, bere irekieratik hasi, irailaren 11an, eta 2016ko irailararte. Proiektua ekintza publiko programa batekin osatuko da.

3. Kapituloa (9'14'')

FRESH WORK MACHINE

Ez «Sentipen kontrajarrien» aditu alemanarekin izandako elkarrizketa baten harira, absentzia argiz osatutako arratsalde batean idazten hasi nintzen, printzipioz Materia-mihiztatzeari buruzko oharrak izendatu dudan zerbitu.

1. oharra

«Nire lan-mahaiaren ezker aldean lanpara txiki eta segail bat daukat, gorantz begiratzen du modu misteriozuan, espiritualtasun-haize batek jota bezala. Pizten dudanean, argiak sabaia horailtzen du, soilik apurtxo bat. Eta, orduan, nire buruari esaten diot: "hain duina bere asmoa, hain laburra bere eragina"».

3. oharra

«Brecht-en Ulm 1592 poeman, jostun bat eta gotzain bat eztabaidan ari dira, hegan egiteko aukerari buruz. Jostunak, bere grinean ikus baitezakegu aro berriaren izpiritua, lor dezakeen teknika guztia bildu eta jauzi egiten du, amildegira. Hil egiten da (hori dela-eta, Brechtek beste nonbait dioten moduan, izpiritua beti doa materiaren aurretik, txakur jostari baten moduan). Poema amaitzean, gotzainak baieztatzen du, arrazoiz: "gizona ez zen txori jaino, ez du sekula hegan egingo"».

5. oharra

«O, arrotz hori, gure atzerritar gure erraiek oroitzen duten arrotz».

7. oharra

«Sekulako nagia sentitzen dut, ia-ia apatia den nagia. Ausiki itxura duen nagia, denik eta okerrenetakoa, ez duzu-eta jaten, baina ezta jaten uzten ere. Faltan sumatzen dut maitaleak lagundutako alferkeriazko nagia. Faltan sumatzen du betiereko ohe hori, betiereko liburuarekin, betiereko goizetan. Eta betiereko besarkada. Eta betiereko tontakeriak eta betiereko barrea. Nagia goretsi ez ezik praktikatu ere praktikatu duenak ondo daki zeri buruz ari naizen: gorputzak dilatzen ditu nagia, espazioak urtzen, erlojua gutxiesten, mengel eta ordenagabe bihurtzen du



denbora, biharrak atzokoarena egiten du, atzo gaurrekin nahasten da, "sekula ez da gehiegi" bilakatzen da "sekula gehiegi da". Orain, ordea, nagi gogor batek astintzen nau, lanaren aginduei men egiten diena, lugorri bati bezala. Nagi gaixo bat da: ez da hori, egiatan. Die neue sklaverei!».

9. oharra

«(...) Zergatik bilakatu, denbora guztian, burua etxe bat?».

11. oharra

«Auzokide batek azaldu didanez, txikitan, Zumaiaiko arrantzale bat aditu ohi zuen, Lau Oinazeen Itsasoari buruzko istorio zaharra kontatzen, behin eta berriz. "...Itsaso horretan barrena abiatu zen behin, arrain-gose, titare baten neurriko txalupa batean, Jose Zaldua delako bat, Pasaiakoa. Behin, mistralaren adiskide egin zen eta, txaluparen bidea geratuta, bere artsenala zabaldu zuen: sarea, kanabera, apeudun amua eta Santa Klararen irudi bat. Hantxe egon zen ordu mordoxka batean, hainbeste, ezen sei bider egin baitzion diosala ilargiari, eta beste hainbestetan ez baitzion jaramonik egin, nekearen nekez. Oin bat galdu zuen, hotzaren hotzez, eta bi hortz, zorigaiztoko eskorbuto baten ondorioz. Jakin badakigu azienda ahulak zorri asko dituela, eta egia da, era berean, zorriak ez direla beti kanpokoak ezpada baita norberaren barrutik atereak ere, eta Zalduari, oinazeak hartuta, oinik eta hortzik gabe, beherako itzela etorri zitzaion, hain zorrotza ezen metro eta erdi heste barreiatu baitzuen txaluparen barruan, eta ez da gutxi. Baina hantxe eutsi zion gizonak, ez hortz, ez oin, ez errai: arrainen isiltasuna zitzaion mingarrien"».

Oin-oharra. Egia esan, Modernitateak laugarren oinaze hori hartu eta borrokarako kausa bilakatuko luke, lehen hiru oinazeak baldintza filosofiko izango zirelarik: «gainerakoek idealak ikusten dituzte; nik, ordea, gizatasuna baino ez dut ikusten, gehiegizkoa».

13. oharra

«Gilbert Simondon: "makina atzerria da, gizakia giltzapetzen duen atzerria; gizaki ezezaguna, gauzatua, zerbitzari bilakatua"».



MAÑANA GOODBYE

Un film de CRUZA MARTE

Serie de 12 capítulos que indaga el cambio de modelo productivo por el cual la antigua fábrica de tabacos se convirtió en el actual Centro de Cultura Internacional. Al acecho, dos grandes interrogantes: ¿qué necesitamos del pasado cuando se trata de trabajo? y ¿cómo y desde dónde se puede hablar de memoria?

Tabakalera encarna estas y otras muchas cuestiones, sin perjuicio de las cuales ha destinado un pequeño espacio en el centro, la Bodega, en el que la serie se expondrá a modo de instalación audiovisual, añadiéndose un capítulo a mediados de cada mes, desde la inauguración el 11 de septiembre de 2015 hasta septiembre de 2016. El proyecto se acompañará con un programa paralelo de actividades públicas.

Capítulo 3 (9'14") FRESH WORK MACHINE

A raíz de la conversación que mantuve con la especialista alemana en «sentimientos encontrados», una tarde de ausencias claras comienzo a escribir lo que al principio llamo Anotaciones sobre Ensamblajes de Materia.

Anot.1

«Tengo sobre el lado izquierdo de mi escritorio una pequeña y espigada lámpara, que mira hacia lo alto de forma algo enigmática, como si la enarbolara un ataque de espiritualidad. Cuando la enciendo, su foco de luz apenas amarillea ligeramente el techo. Y me digo entonces: “tan digna su aspiración, tan corto su alcance”».

Anot.3

«En el poema de Brecht titulado Ulm 1592, un sastre y un obispo discuten sobre la posibilidad de volar. El sastre, en cuyo afán una lee el espíritu de una nueva era, se arma de la técnica que puede y se lanza al vacío. Muere (de ahí que, como dice Brecht en otro lugar, el espíritu siempre precede a la materia como un perrillo haciendo cabriolas). El poema acaba con el obispo afirmando con razón que “el hombre no nació pájaro, jamás logrará volar”».

Anot.5

«Oh, extranjera, extraña nuestra
que nuestras entrañas extrañan».

Anot.7

«Siento una pereza tremenda, próxima a la apatía. Una pereza tintada de remordimiento, que es de las peores, porque ni come ni deja comer. Echo de menos la holgazanería de la pereza acompañada del amante. Echo de menos esa eterna cama con el libro eterno en mañanas eternas. Y el abrazo eterno. Y la tontería eterna y la risa eterna. Quien no se haya limitado a elogiar la pereza y la haya practicado sabe a lo que me refiero: la pereza dilata los cuerpos, derrite los espacios, ningunea el reloj, el tiempo se vuelve flácido y desordenado, el mañana juega al ayer, el ayer se confunde con el hoy, el nunca es demasiado se convierte en demasiado es nunca. Ahora me sacude una pereza dura, la que responde al dictado del trabajo a modo de barbecho. Es una pereza enferma: no es tal, realmente. Die neue sklaverei!».



Anot.9

«(...) ¿Por qué hacer en todo momento de la mente un hogar?».

Anot.11

«Me cuenta una vecina que, de pequeña, solía escuchar a un pescador de Zumaia repartir repetidas versiones de una vieja historia sobre el Mar de los Cuatro Dolores. “...Por este mar se aventuró en cierta ocasión, ávido de peces, en una barca del tamaño de un dedal, un tal José Zaldúa, vecino de Pasaia. Una vez se amistó el hombre con el Mistral, detuvo su barca y desplegó el arsenal del que disponía, red, caña, anzuelo con señuelo y una imagen de Santa Clara. Se estuvo allí tantas horas apostado, que saludó a la luna seis veces y otras muchas, ya cansado, la ignoró. Perdió un pie del frío y dos dientes por un escorbuto ruinoso. Que a perro flaco todo son pulgas es tan cierto como que las pulgas las más de las veces no vienen de fuera sino de dentro de una, y a Zaldúa, hartado de dolor, ya sin pie y desdentado, le sobrevino entonces una diarrea tan aguda que derramó por la barca metro y medio de intestinos, que ya es decir. Pero ahí siguió el hombre, pues ni pie ni diente ni vientre: lo que más le dolía era el silencio de los peces”».

Nota al pie. Lo cierto es que de este cuarto dolor haría la Modernidad la causa a batir, mientras que los tres primeros servirían como condición filosófica: «donde los demás ven ideales, yo solo veo lo que es humano, demasiado humano».

Anot.13

«Gilbert Simondon: “la máquina es el extranjero; es el extranjero en el cual está encerrado lo humano, desconocido, materializado, vuelto servil”».